

Ogasun eta Finantza Sailaren 2316 Foru Agindua, 2017ko abenduaren 28(e)koa, hitzarmenak eta gomendioak onartu aurreko kontrol ekonomikoari buruzko txostenak egiteari buruzkoa.

5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 143. eta 144. artikuluek ezartzen dute kontrol ekonomikoaren helburua dela Foru Aldundiko organo eskudunek eman eta eduki ekonomikoa duten xedapenak aurretiaz kontrolatzea, eta kontrol ekonomiko horren helburua dela kontrolatzen diren xedapenen ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-eragina ebaluatzea.

Bestalde, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 122. artikulua hau ezartzen du: *«Foru-arauen aurreproiektuak eta Foru Aldundiaren foru-dekretu arauemaileen, Foru Aldundiaren foru-dekretuen eta Ahaldu Nagusiaren foru-dekretuen proiektuak kontrol ekonomikoaren menpe egongo dira, araudi honetan ezarritako baldintzetan, baldin eta aurreproiektu-proiektuok eduki ekonomikoa badute.*

Halaber, kontrol ekonomikoa aplikatuko zaie Aldundiaren Gobernu Kontseiluari onarpena eman diezaien aurkezten zaizkion administrazio-ebazpenen proposamenei, baldin eta ebazpenok eduki ekonomikoa badute.»

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua horrek hau ezartzen du XEDAPEN IRAGANKOR bakarrean: *«Kontrol ekonomikoa –araudi honetako IV. tituluko II. kapituluaren arautua– 122. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatzen diren arau-xedapenak ematen direnean hasiko da, foru-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.*

Artikulu horretako bigarren paragrafoan aipatzen diren administrazio-ebazpenen proposamenei gainera kontrol ekonomikoa aplikatzeko egutegia foru-dekretu honetako lehenengo xedapen gehigarrian jasotako gaikuntzaren arabera gauzatuko da.»

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua aldatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko ekainaren 14ko 108/2016 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenengo horrek hau ezartzen du: *«Gaikuntza. Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.»*



Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko ekainaren 14ko 108/2016 Foru Dekretuan ezarritako gaikuntza hori dela bide, hau

Xedatzen da:

Lehenengoa: Aginduzkoa den aurretiazko kontrol ekonomikoari buruzko txostena izateko, eta, ondorioz, aginduzko txosten hori egiteko betebeharra aplikatzea Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartu beharreko hitzarmenei eta kudeatzeko gomendioei. Hasierako onespenean, aldaketetan eta suntsiarazpen aurreratuetan aplikatu beharko da. Betebehar hori 2018ko martxoaren 1etik aplikatu beharko da.

Bigarrena: Foru agindu hau Idazkaritza Orokorreko Unitateari, Fiskalizazio Zerbitzuari eta sail guztietako Zerbitzu Orokorren Zerbitzuari, jakin dezaten kontrol ekonomikoari buruzko txosten hori izan behar dutela proposatutako hitzarmenak eta gomendioak izapidetzeko. Horretarako, memoria ekonomikoa bidali beharko dute Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzura.

Nolanahi ere, zeuk ebatziko duzu zer den egokiena.

Bilbo, 2017ko abenduaren 28(a)

AURREKONTU ETA KONTABILITATE
ZERBITZUKO BURUA

Sin.: Koldo Zabala Bilbao

AURREKONTUETARAKO ETA
EKONOMIA KONTROLERAKO
ZUZENDARIORDEA

Sin.: Aitor Salsidua Urruela

O. E.
FINANTZA, AURREKONTU ETA
ONDAREAREN ZUZENDARI
NAGUSIA

Sin.: Aitor Cobo Presilla

OGASUN ETA FINANTZEN FORU
DIPUTATUA

Sin.: Jose Mª Iruarizaga Artaraz